



JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Egungo legeek adingabe guztien ongizatearen printzipioa defendatzen dute, heldu eta adingabeen arteko elkarbizitza-ren oinarritzko elementu gisa. Ibérica Maristar Probintziako erakunde eta instituzioek beraien misioetan diharduten guztiei - lanean zein boluntario bezala- adingabeekin zuzenean edo zeharka erlazionatuta, jardunbide egokien kode hau ezagutzea eta haien gain hartzea exijitzen dizkiete.

Adingabeekiko traturako jardunbide egokien kodea

Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen integrala lortzea da. Beraz, helburu horrek adingabearen izatea, egin beharra, ezagutzea eta bizikidetzan barne hartu behar ditu. Hezitzaileak egoera egokia sortu behar du adingabea garatu ahal izateko, eta hori soilik segurtasun, errespetu eta konfiantzatik posible izango da. Hezitzailearen ekintzek, jarrerak eta jokabideek, instituzio printzipio eta balioekin bat etortzeaz gain, adingabea seguru senti dadila eta bere buruarekiko fidatua izan dadila bilatu behar dute.

Era berean, taldean egiten diren jarduerak guztiak hezkuntza-irizpideekin bat etorri behar dute, adingabeen segurtasun fisika edo emozionalerako kaltegarriak izan daitezkeen ekintzak edo jolasak baztertuz, hala nola hezkuntza harreman egokitik urrun dauden hezitzaile eta adingabeen arteko giroak.

Hemen adierazten ditugu hezitzailearentzat lagungarri izan daitezkeen jokaera-jarraibide batzuk, printzipio orokorrak aipatuz eta jarraitu edo ekidin behar diren ekintzak eta jokabideak seinalatuz.

1. Adingabe guztiak errespetuz tratatzea, eta hurbileko presentzia eta umeeiko maitasuna ardatz dituen maristar printzipioen arabera jokatzeko.
2. Adingabeek beraien osasun fisikoa eta emozionala arriskuan ipini gabe askatasunez adierazteko moduko giroa sortzea, eta bertan hezitzailea adingabearentzat erreferentziazko eredu izatea.
3. Adingabeen mugak errespetatzea, haien eskubideen gaineko zerizana eta kontzientzia garatzen lagunduz, baita horiek arriskuan jar ditzakeen arazorik badago jokatzeko modua garatzen laguntzea ere.

**Hezkuntza
jarreraren
irizpide
orokorrak**




Adigabeekin jarduera seguruak egiteko prebentziozko prozedura

- a. Jarduera bati ekin baino lehen, gerta daitezkeen arrisku guztiak ebaluatuko dira, etxetik kanpo egingo diren jardueretan batez ere. Adingabeek gaua pasatuko duten espazioak planifikatzeak, baita kotxe partikularrez lekualdaketa posibleak aurreikusteak ere, gatazkak saihesten lagunduko ditu.
- b. Jardueren antolatzaileek adingabeen guraso edo arduradunen baimen sinatua eskura eduki behar dute, adingabeek eskolako eremuan ohikoa ez den jardueretan parte hartu baino lehen.
- c. Proiektu edo jarduerak egiten direnean, adingabeak egoki ikuskatu eta lagundu behar da, haiek beti babestuz.




- e. Informazio-teknologiaren behar bezalako erabilera bermatzeko orientabide argiak ezarriko dira, adingabeak arrisku egoeran egotea edo abusu eta esplotazio inguruabarretan bizitzea saihesteko.
- f. Jarrera hezigarriari eutsiko zaio heldu eta adingabeen arteko errespetu giroan, guztiek beren funtzioa eta erantzukizunak argi dituztela ziurtatuz. Adingabeekin ikusitako edozein jarrera desegoki jakinarazi behar da.
- g. Hezkuntza-ekintza osasuntsu baten baitan, interakzio eta harreman fisikoak egokiak direla bermatu behar da, adingabearen adinari dagozkionak, beti beren hezkuntza-beharrizanetan oinarritutakoak.



Adingabeekin jarduerak egitean ekidin behar diren ekintza edo jarrera desegokiak

- a. Nagusikeria, indar-abusu edo tratu txar fisikotzat har daitekeen edozein motatako eraso fisikoa. Ez da zuzenketa fisikorik onartuko.
- b. Adingabea mindu edo taldekideen aurrean irrigarri utz dezaketen ahozko erasoak eta eraso fisiko edo emozionalak.
- c. Abusu edo esplotazio bezala har daitekeen edo adingabea abusu-arriskuan jar dezakeen adingabeekiko edozein harreman mota. Egoera hau berehala komunikatu egin behar zaio adingabearen babeserako Koordinatzaile lokalari, edo ikastetxeko Zuzendariari, zentroko adingabearen babeserako Manualean adierazten den prozedura jarraituz.
- d. Sexu-konnotaziorik izan dezakeen edozein jarduera eta jolas saihestu behar dira adingabeekin eta adingabeen artean, hala nola hezkuntza helbururik ez duten gai sexualei buruzko elkarrizketak.
- e. Helduek eta adingabeek aldagela eta dutxa berak eta aldi berean erabiltzea kirol eta aisialdi jardueretan.
- f. Helduek eta adingabeek kanpin-dendan edo ohe berean lo egitea.
- g. Adingabe bat edo gehiago bere etxean hartzea gauean zehar, gurasoen baimenik gabe eta beste helduen presentziarik edo ikuskapenik gabe.
- h. Legez kanpoko droga edo alkoholaren efektu azpian egotea adingabeekiko jardueretan.
- i. Alkoholaren edo drogen kontsumoa sustatzea, bultzatzea, edo adingabeei baimentzea.
- j. Adingabeen aurrean mintzaira zakarra erabiltzea.

- l. Adingabeekin egingo den jarduerako biluzik edo desegokiro jantzita egotea.
- m. Adingabeei argazkirik ateratzea, jantzi gabe edo janzten daudenean.
- n. Eskola-esparru barruan edo adingabeekin jarduerak egiten diren bitartean, inprimatutako edo ikus-entzunezko material pornografikoa edo edozein indarkeria edo irain mota goratzen duen materiala edukitzea.
- o. Adingabearentzat atseginak ez diren edo errefusatzera eragin dezaketen maitasun adierazpenak erakutsi, ezta hezkuntza-ekintza osasuntsu baten mugak gainditzen dutenak ere.
- p. Adingabe batzuk era negatiboan diskriminatzea, tratu ezberdina adieraztea, edo bereziki erraztea, beste adingabeak bazterrera utziz.
- q. Hezitzaileak, bere segurtasunagatik eta prebentzio gisa, ez du bakarka egon behar adingabe batekin logelan, aldagelan, komunean edo beste heldu batzuen ikuspegitik isolatuta dagoen toki batetan.
- r. Hezitzaileak ezingo du parte hartu adingabeen Whatsapp-eko talde batean edo Interneteko mezularitza beste programetan, hezkuntza-lanetarako osatuta dauden taldeetan izan ezik, eta beti ikastetxeko gailu batetik edo zentroak baimendutako gailu baten bidez; horretaz gain, taldean gutxienez bi heldu partaide egon behar dira. Halaber, hezitzaileak ezingo du sare sozialetan adingabeekin harreman pribaturik ezarri. Ezarri behar izatekotan, harreman horiek ikastetxearen profiletatik artikulatu behar dira.



Adingabearen babesa gure lehentasuna da



Tratu txarraren kasuren bat ezagutzen baduzu, harremanetan jar zaitez koordinatzaile
lokalarekin edo idatziezaguzu

protecciondelmenor@maristasiberica.com

Jardunbide egokien kode honen araudia nahitaez bete beharrekoa da. Bertan jasotako xedapenak urratzeak edo ez betetzeak berarekin ekarriko ditu langileen estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta, hala badagokio, indarrean dauden lege zibil eta penaletan aurreikusitako ondorio eta zehapenak.